

HITZAURRE GISA

J. L. Alvarez Enparantza
Aldizkariko zuzendaria

Ohiturari jarraituz, artikulu hauen laburtzapena.

Baxok gure lankidearen *Hizkuntza eta Lurraldea* aipa dezagun hasteko.

Quebec-en luzaz egon ondoren, eta Euskal Herrian hango gorabehera sozio-linguistikoen eta J.A. Laponce-ren "Langue et Territorire" ospetsuaren aurkezle izana, oso lan mamitsu eta irakurgarri hau eskaini digu berriro baxenabartarrak **Bat**-en orrialde hauetarako.

"Lurraldetasuna"/"Nortasuna" bikotearen oinarriak gogorazi ondoren, funtsezko dilemara garamatza izkribu honetan. Zer gerizatu behar da: hiztunen eskubidea, ala hizkuntza bera (eta honi datxekion hizkuntza bakartasuna)? Bestela esanda, pertsonatasunari behar zaio heldu, ala lurraldetasunari?

Alferrikako galdera, alde batetik; zeren-eta (eta Laponce-ren bidetik) ez baitago hizkuntza gerizatzerik bere lurraldea bermatu gabe.

Soluzioak ezagunak dira: hizkuntza bakarra egotea; bi hizkuntza elkarren ondoan egotea, bai, baina funtzio desberdinetan baliatuak (diglosi egoeran, beraz); diglosi funtzional horretatik diglosia estratifikatzaile lerratzea; eta azkenean hiru eragile nagusiak: hiztunen kopurua (tamaina demolinguistikoa, nolazpait esateko), komunikazioen trinkotasuna, eta estatus sozio-politikoa lantzea.

Aldagai asko. Baina denak garrantzitsu.

Eta konponketarako bidean, hiru joera posible: 1/ lurraldearen eleba-kartasuna (Suitza eredu, Baxoken adibidean); 2/lurraldeen nola-halako elebitasuna (Espainia aipu); eta 3/ lurralde "ukatuak" antolatzea (Frantziak darabilen eredu): "LA langue de la République est LE FRANCAIS". Kitto !

Oso argigarria suitzar ereduaren alde dakarren esalditxo: "on s'entend bien parce qu'on se comprend mal"... Niri neuri, bederen, T. Monzon zenaren esa-naren oroigarri: "Ulertzen ez gaituztenean hasiko dira gu ulertzen". Ia-ia hitzez hitz gauza berbera baitira biak.

Eta Mackey-ren ideia ezaguna errepikatzen digu Baxokek: "elebitasun etnikoaren arriskua". Alegia, funtzio berberetarako, bi hizkuntza elkarren ondoan atxeki nahi izatea. Projektu hau zentzugabea delako: funtzio berberak betetzeko, bi koda? Bat erredondantea da, -eta desagertu egiten da.

Zakarkiago esanda: proposatzen zaigun "elebitasun orokorra", ezina. Oso ofiziala eta goitik bedeinkaturik badator ere.

Oso izkribu mamitsua eta irakurgarria.

A. Mirambel kataluniar juristarenak, berriz, balio handikoa zalan-tzarik gabe. Baina zaila.

Konstituzioa eta Estatutuak zehazki aztertutik, oso baliagarri gerta daiteke, eta gertatuko zaie Barinagarrementeria eta Aiantzaren lankideei. Baina teknikoa oso.

Eta honetaraz gero, mintza bitez gure juristak; eta hemen neure eskuetan ez daukadan moduan.

Gutziz interesgarri (eta areago agian mementu honetan Sanz eta PP-kideen eraso betean ari direnean) **Oinarriak** alorrean "Lege Berri bate-rantz" izeneko lana. "Euskararen normalizaziorako legea Nafarroan" izenpuruak garbiki adierazten duenez, lege-aldaketa nola mami litekeen azaltzen digu.

Baina ez urrundik, edo gaingiroki; guztiz zehazki, eta artikuluka bai-zik: "Printzipio orokorrak" hasteko (10 artikulua sendo eta zindo); "Irakas-kuntza", ondoren, multzoka (beste 15 artikulua); "Komunikabideak" (7 art.); "Administrazioa" (beste 21 artikulua); "Kultura" (beste 4), Sozioeko-nomia (beste 9), eta "azken xedapen" gisa (azkeneko bat). Data: 1999ko apirilaren 16a, Iruñean.

Lanak ez du akatsik, benetan. Eta nafartar euskaltzale guztiei gerta dakieke baliagarri eta inspirazio iturri.

Bide bertsutik datorrigu **Andres Urrutia**-ren lana. Eta berri zehatzak dakartza "Sustapen Batzordea"ri buruz, baita Aramaio-ko Jardunaldiez eta mami daitekeen "Axular Institutuaz".

Oso ohar egokiak, adibidez, **corpus** vs. **status** bikoteari buruzkoak; "txan-pon beraren aurpegi desberdinak", dionez.

Erabilera bermatu beharraz mintzo da Urrutia, "Euskal Herriaren

batasunean oinarrituta ". Eta honetan bi bultzatzaile aipatzen: gizartearen eskabidea, aurrenik; eta baliabide juridikoak, bestetik. Biak behar, askotan azpimarratu izan dugunez.

Eta, gehigarri eta zutarri: euskararen "kalitatea". Gaur egun ko "loka. **Iñaki Larrañagak** larriturik ondoko elkarrizketan deitoratzen duen bezala.

Xabier Isasi Irakaslearen izkribua, beste askotan bezala, **Demolin-guistikaren** alorrean mamitzen da.

Donostiari buruz mintzo zaigu oraingoan, baina prospektibaren ikuspuntutik: nolakoa izan daiteke Gipuzkoako hiriburuaren hizkuntz egoera 2021 urtean?

Auzoz auzo egoera azaldu ondoren, hazkuntzak edo galerak aurre-somatzen saiatzen da.

Eta bereziki bi auzotan aurkitu uste du Isasik kezkatzeko motiborik: Igeldon eta Añorgan (hiru ditu gogoan, dena dela). Horietan ez besteetan -dinosku- gora joan baita euskararen ezaguera (eta ezaguera lehenengo urratsa baita).

Zergatik horietan ez? - galdetzen du berak eta guk guztiok.

Ezin bapatean erantzun, jakina. Baina Igeldo "résidence secondaire" bihurtu zaigu, eta hein batean jauntxo-gune (Hondarrabia bezalatsu, agian). Ez ote da hau gakoa?

Eta, nolanahi ere, eta azterpidetzat nik moldatutako teoria aipatzen duenez, xehetasun hau erantsiko dut ir "akurlearen zerbitzutan: udazken honetantxe kaleratuko dela, hizkuntza batzutara itzulirik eta osaturik, azkeneko hamabost bat urte honetan landu dudana teoria matematiko horren bilduma osoa.

Miren Billalabeitia-ren "Emakumeak eta Komunikazioa" izeneko txostenaz "un autre son de cloche" dela esan behar da. Ez estatistikarik, ez horrelakorik. Mirenek sexuen hizkeren arteko desberdintasunak ditu aztergai.

Irakurleak aterako ditu bere ondorioak.

Alcoi-ko IX Soziolinguistika jardunaldietan egondako **Xabier Erize** lanki- deak ematen digu beraien berri. Laburkiegi, zoritxarrez; azaltzen digunak gehiago jakitzeko egarria piztutzen baitigu. Parte hartzaileek ere (Ninyoles, Llobera) lanak beren osoan ezagutzeko jorana hozi erazten.

(Agian honela izango da ondoko hilabeteotan, besteetan ere gertatu izan den bezala).

Nazioak "hizkuntza taldeak" dira berriro, itxura denez.

Eta guk oso aspaldian azaldutako Sapir-Whorf-en "Errelatibitate Hasikina" famatua, bestek ere aipu du gaur. Kontsolagarri. °

Erize-ren beraren "Mentalitatea eta ideologia erdal hizkuntz komunitatean" txosten hori irakurri nahi genuke (bai guk, bai irakurle askok, nik uste). Agian bai !

Eta Nafarroa eta Valencia Castellok alderatu izana, bidezkoa.

Euskara Oarsoaldeko Merkataritzara, lan zehatza, beste askotan

bezala, lagungarri gerta dakieke euskara merkataritzaren mundura zabaldu nahi duten teknikari eta euskaltzaleei.

Patri Arburu eta **Paula Kasares** bi nafartar teknikariek prestatu duten izkribua, bikaina da, zehatza eta eredugarria.

838 gazteri eta 1200 herritar helduri egindako galdeketa ondoz mamitua, benetako argazkia eskaintzen digu. Eta egia esan, eta askotan entzuten direnak ezaguturik, bihotz altxagarri gertatzen da. Baztanen, Bortzirietan, eta Malerrekan, euskara bizi bizirik dago. Hori bakarrik ez: ezaguera mailan bederen gorantz doa. Zifrak hor daude.

Aztertutako eremu horretan 21.111 biztanle bizi dira. Hor daude, besteak beste, Elizondo, Arantza, Lesaka, Eratsun, Itturen... Euskaldunak errotik, irakurleak dakikeenez. Eta hemen ere sendotzen.

Xehetasun mamitsuak denetan. Izkribua buruz buru irakurtzea onena.

Unibertsitateko "Euskal Adarra" delakoaz txosten zehatza damaigu hemen **Alaitz Areitiok**. Hemen beltzuneak ugariago dira argiguneak baino. Baina on da herriak argi eta garbi gure Unibertsitatea zertan den jakitea. Adibidez 286 irakaskai euskaratzea falta zaigula oraindik...

Eta, "last but not least", **Iñaki Larrañaga** lankide eta profetaren elkarrietzeta. Iñaki izan baita herri honetan, Txepetx-ekin batera, Soziolinguistika zientifikoaren profeta eta aitapontekoa. Nori berea.

Parisen ezagutu nuen nik Itsasondoko apez famatua 1961 inguruan, ETA dela-ta ni haraino ihes egin berri; eta bera, berriz, Sorbonnen Soziologia ikasten ziharduelarik.

De Gaulle-ren kontrako "kolpea" gertatu zen gau "historiko" hartan elkarrekin izan genuen afora Saint Germain de Près auzoan, eta Karlos San Atamaria mahaikide. Bego hori.

Iñakik Euskal Soziolinguistika egin nahi zuen. Baina Francok bazituen oraino beste 15 urte aurrean... eta Aita Larrañagak abertzale fama "txarra" zuen.

Eta, hala ere, elkarrietzeta mamitsu eta hunkigarri honetan apalki baina jator aitortzen duenez, aurrera jo zuen. Eta S.I.A.D.E.C.O. sortu zuen. Eta gure hizkuntzaren egoeraren ezaguera errotik aldatu zuen. Mila esker anitz!

"Une kaotiko haietan", "guztia hormigoi eta asfaltoz bete nahi zela" ematen zuen garai hartan, Iñakik euskararen benetako egoera ezagutu nahi zuen. Eta behin eta berriz antolatu eta burutu zituen hizkuntz inkestak, hemen eta han.

Inork ez daukan ezagueraz mintzo da, beraz, Larrañaga euskararen patuaz; galtzen eta lardaskatzen ari den hizkuntzaren oinazea berak ere bihotzaren erdian baitarama, iltzaturik.

Hots, Larrañaga beltz agertzen zaigu elkarrietzeta honetan.

Alde batetik, Eu Vskal Herriko joko-zelaia, "bonba-minaz beteriko zelaia" dela uste du. Eta lege-marko honetan euskararen normalizazioa ezina dela: "normalizazioa bideratu ahal izateko, ezinbestekoa da hiz-

kuntzen arteko berdintasunaren printzipioa kontuan izatea. Eta horixe da, hain zuzen, Espainiako eta Frantziako konstituzioek eta beren baitako legeek onartzen ez dutena, era horretan espainola eta frantsesa ez diren hizkuntzen normalizazio prozesuari bidea itxiz". Gauzak garbi.

"Atxikimendu sakon baten falta" ikusten du Larrañagak euskaldunengan, are abertzale omen direnengan. Eta gauzak horrela baikor egoteko oinarririk ezin atxeman.

Mingarri agertzen zaigu, tristaturik, etsiturik agian.

Berak erretiroa hartuta, ezer handirik egiterik ez daukala somatuz, beharba-da.

Beltza, bai. Baina irakurgarria ere bai, benetan.